

Abertzaleok eta udal-hauteskundeak

Deia, 1977-08-21.

Udako siestan gaude.

Ba dirudi gure herriko nerbio-sistema guzia lo-zorroitu zaigula.

Hala ere, guretzat alperrikako bezala dihoan festa-denbora hontan ba datoz udal-hauteskundeak urbiltzen. Joandako hauteskundeetan euskal abertzaleok egin ditugun hutsak zuzentzeko gauza bagina, gaitzerdi izango litzateke, baina orduan egindakoaz gainera orain beste batzu erazten ba dizkiogu, kalte haundia izan ditekete.

Nik, nere aldetik, kezka batzu erakutsi nahi ditut.

Ados gara, noski, joan diren hauteskundeak eta orain egingo direnak ezberdinak direla: haiek Madrid-eko telebistak irabazi zituen gehienbat, oraingoak herri-arazoak irabazi behar ditu herriz-herri.

Honen zai dago, behintzat, euskaldun asko.

Eta espero dugu, udal-hauteskunde hoiek gure alde jokatuko dutela, gure herrikoitasunak eragin berezi bat erakutsiko duela.

Baina, kontuz, ba ditugu aurrean kompetentziak.

Kompetentzi hoiek ez dira sortzez esan nahi berdinekoak, baina ba dute hemen aitatu nahi ditudan biak euskaldunontzat ondoren berdineko den zerbait: Gure herritasunarentzat kaltegarri izan ditezkeela.

Bat, gaurko ofizialkeria; bestea, euskal-kutsu faltako ezkerria.

Orain dela gutxi arte, Franco-ren aurkako izatea nahikoa zen gutar sentitzeko; honetaz gainera Euzkadi aitortzen bazuen, oraindik hobe, noski; eta abertzale bazen, anaia. Gaur, frankismoaren uxapenarekin, ba dirudi gauzak gehiago bereizten hasi behar dugula; abertzale izan gabe Euzkadi aitortzen duena ez da, noski, arerioa, baina gure kultura eta herritasun aldetik ahulduko duena, bai, eta arazo hontan, herritar hau gure kompetentzia da, eta, beraz, kontrakoa, demokratikoki erderaz "adversario" esaten zaiona.

Eta iritzi hau argitu nahi dut.

Euzkadi aitortu, Autonomiaren alde egon gure herri-kulturaz arduratzen ez dena, hau, datozen hauteskundeetan abertzaleon kontrakoa da; demokratikoki eta lehialki, noski, baina kontrarioa. Hala, honek herri-administrazioaz eta izentatu behar diren gizonez hartzen *hasia den* inizatibak zaindu behar ditugu, eta hoiien ordeko, gureak, euskaldunak eta herritasunez mamituak diren alternatibak pentsatu eta erakutsi behar ditugu. Bestela, lehen zentro espainolak egin digun joko bera egingo digu ezker-espainolak, nahiz eta Euzkadi, Autonomia eta guztietan bat etorri: barruko herritasuna, euskera eta kultura osoa hustutzeko administrazioa hartuko digu. Ezker hortaz hau nabarmentzen hasia bada. UCD-renak ere ba du kezkarri den zerbait:

1. Ez uste izan, gero, UCD oraingoan ere telebixtaz baliatuko ez denik. Ez du lehengo aurpegi irripartsu hura bera erakutsiko, baina herrietan dituzten gizonak potentziatuko ditu, hoiien "imajena" goratzen saiatuko da.

2. Beste aldetik, frankismoaren kondarrak oraindik hor daude herrietako administrazioan. Honek egingo du bere lana. Eta honetaz gainera, gobernadoreak bereak ditu. Azken izentatutako hamabiak, UCD-koak dira.

3. Goragoko mailan oraindik: Gobernua bera, noski, eta gero Kongresoa, dituzten resorte guziekin.

Hoiien aurrean, euskaldun abertzaleok, zertan gara?

Gure diputatu eta senatoreak buru-belarri dabilta. Estatutoa dela, Autonomia arterako jaurlaritza dela. Baina bitartean behar lukete abertzale diren alderdi eta taldeek sakonki gure herriak behar dituen estrategiak aztertu, herrietan adi jarri eta lanak egin.

Ez gaitezen, udako siesta honen ondoren, amets txar batekin esnatu.

Eta ametsa egi bihurtu!